

Publizitatea eta gorputzaren gurtza



JUSTIFIKAZIOA

Publizitateak irudiaren eta edertasun-kanonen inguruan duen ikuspegia sortzeko eta definitzeko orduan duen eragina ukaezina da. Publizitatearen boterea eta gorputza gurtzeko obsesioa gure osasun fisiko eta mentalerako oso arriskutsuak izateaz gain, kontsumitzaile gisa ditugun jokabideak eta jarrerak ere baldintzatu ditzakete. Horregatik, beharrezkoa da publizitate hori ikuspegi kritikotik ikustea, eta ez onartzea bere errealitateak unibertsalak bezala.

HELBURUAK

- Publizitateak irudi mota jakin bat sortzeko eta definitzeko duen ahalmena erakutsi, baita irudi horri lotutako gorputza gurtzeko egiten duen ekarpenaz jakinarazi.
- Gorputzaren gurtza eta edertasun-kanona desberdinak direla ulertarazi, garaiaren eta kulturaren arabera.
- Irudiarekiko obsesioarekin lotutako nahasmenduak eta horiek eragiten dituzten arrisku-faktoreak ezagutarazi, baita publizitatearen eta faktore horien arteko erlazioa ere.
- Genero-desberdintasunak ikusarazi publizitateak duen irudi idealarekiko presioari dagokionez.
- Kontrapublizitatea ezagutarazi, publizitate nagusiaren aurkako estrategia gisa.

EDUKIAK

- Garai eta kultura desberdinetan gorputza gurtzea.
- Gorputza gurtzearekin eta horiek eragiten dituzten faktoreekin lotutako nahasmenduak.
- Publizitateak irudi perfektu jakin bat definitzeko eta sustatzeko duen zeregina, eta genero-nahasmendu eta -presio desberdinekin duen lotura.
- Kontrapublizitatea, publizitatea kritikatzeko modu gisa.

JARDUERAK

HASIERAKO FASEA (Aurretiko jarduera)

- Galdetegia.

GARAPEN FASEA (saioa)

- Zer da gorputzaren gurtza eta zein da irudi ideala gaur egun?
- Edertasun-kanonak hainbat garai eta kulturatan.
- Publizitateari eta gure irudiari buruzko hausnarketa.
- Publizitate-mezuak aztertzen.
- Gorputza gurtzearekin lotutako arrisku-faktoreak eta nahasmenduak.
- Kontrapublizitatea.

APLIKAZIO ETA KOMUNIKAZIO FASEA (Ondorengo jarduera)

- Publizitate-kanpaina sortu, kontrapublizitateko estrategiak erabiliz.

OINARRIZKO KONPETENTZIEI EGINDAKO EKARPENA

DIZIPLINARRAK

- Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia.
- Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia.
- Arterako konpetentzia.

ZEHARKAKOAK

- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko konpetentzia.
- Elkarbizitzarako konpetentzia.
- Ikasten eta pentsatzen ikasteko gaitasuna.
- Izaten ikasteko konpetentzia.

METODOLOGIA

- Lankidetzalana.
- Banakako lana.
- Thinking based learning.
- Critical thinking.

ANTOLAKUNTZA

* IKT baliabideak eta tresnak	Espazioak eta taldeak	Iraupena
Pantaila digitala/proiektorea. 3 tablet. Interneterako sarbidea.	Gela bat. Parte-hartzaileak 3 taldetan banatuko dira.	Saio 1 - 90 min

* Baliabideak erabilgarri dauden ala ez jakinaraztea, esperientzia Kontsumobideren zentroetatik kanpo garatzen bada.

EBALUAKETA

IRAKASLEAK

Ebaluazio-inkesta.

IKASLEAK

Ebaluazio-inkesta.